

Enpleguaren hamarkada galdua



Endika Alabort
Amundarain
EKONOMIALARIA
@autogestioa

Barne Produktu Gordina (BPG) ez da erremin-ta ona herrialdearen aberastasuna neurtze-ko. Hala ere, ekonomistek magnitude hau erabili ohi dugu, lanabes moduan. Estatistikak eta tasak aipatzerako orduan, hainbeste zenbaki artean irakurle arrunta erraz galtzen da. Aitor-tzen dut: niri askotan ere gertatu izan zait. Hurrengo lerroetan datuak ulergarri egiten saiatuko naiz.

2007 eta 2017 urteen artean, Euskal Auto-nomia Erkidegoan eta Nafarroan, zazpi urtez jarraian aberastasuna galdu zen, azken bi urtee-tan aurreko maila berreskuratuz: 2015eko BPG 2008ko kopuruetera heldu zen. BPGren ikuspun-tutik, badirudi krisia “gainditu” dela. Gakotxoan artean aipatzen dut, batez ere aurreko maila berreskuratzeak esan nahi duelako hazkunde au-ker handia galdu dela bidean.

Enpleguaren aldetik, berreskurapen hori ez da oraindik eman. Analisi honetarako hiru elementu erabiliko ditut: jardunaldi mota, eta sektore pri-batuko eta publikoko langile kopuruen eboluzioa. Argi utzi nahi dut, orokorrean, kontratu muga-be baten enplegu kalitatea behin-behineko kontratu batena baino handiagoa dela; baita lan jardunaldi oso batena ere, zatikako baten aurrean.

Jardunaldi osoan lan egiten duen enplegatu kopurua, 2007 urteko kopuruarekin alderatuz, 134.000 pertsona gutxiago dira (126.000 gizon eta 8.000 emakume). Zatikako lan jardunaldian,

aldiz, 20.000 langile gehiago daude (16.400 gizon eta 4.300 emakume). Hau da, azken hamar urte hauetan, jardunaldi osoko enplegu ugari suntsitu dira. Zatikako lan jardunaldiak, aldiz, ez dira gai izan enplegu kopuru hau ordeztuko.

Sektore pribatuan, enplegatutako pertsona kopurua krisiaren hasieratik murriztu da, 60.000 pertsonetan zehazki (62.000 gizon gutxiago lanean, baina 2.000 emakume gehiago). Kontra-tu mugagabeen aldetik aztertuz, 2010etik hona 41.000 langile gutxiago daude; behin-behine-koak, aldiz, 2012-2013tik gaur arte handituz joan dira urtez urte.

Sektore publikoan, aldiz, bi epe bereiz ditza-kegu. Lehenengoan, 2007-2012 urteen artekoa, mugagabe enpleguaren sorrera eman zen, behin-behinekotasuna murriztuz. Baina hurrengo-an, austeritate neurriak aplikatu ostean, 7.900 enplegu mugagabe suntsitu ziren, epe berean sortutako behin-behineko enplegua 5.500ekoa izanik, murriztagoa.

Laburbilduz, nahiz eta aberastasun sorreraren aldetik krisi aurreko maila berreskuratu dugun, enplegu aldetik Nafarroan eta EAEn jardunaldi osoko 134.225 enplegu gutxiago daude eta 20.650 gehiago zatikako lan jardunaldian. Jasan-dako soldaten murrizketak gehituz, testuinguru ilun baten aurrean gaude. Horregatik 2007-2017 epealdia, hamarkada galdua izendatu beharko dugu. ■

Venezia sindromea eta disoziazio-ihesa



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetx

Turismoa, kontzeptu gisa, ez dago modan. Aski ezagunak dira, dagoeneko, *turismo masiboaren* aurkako argumentuak. Ikasi dugu, ikusi dugulako, *hiperturistikazioak* gure auzoetako alokairuen prezioak igoarazten dituela, komertzio arruntak turistek bideratutako denda bilakatzen dituela, eta turistentzako zerbitzuetan lan egiten dutenen lan baldintzak prekarioak izaten direla. Ikusi ditugu turista samaldak hiriko espazioak irabazten –alegia, guri galarazten, hitzaren bi zen-tzuetan–, gure eguneroko ohitura txikiak kanpotar-entzako esperientzia salgarri bilakatu ahala.

Horregatik, besteak beste, kanpora goazenean ere ez dugu turista izan nahi. Leku turistikoetan derrigorrezko argazkia egin bai –eraikinak, paisaiak, haur irribarretsua–, baina, gainerakoan nahiago dugu ohiko zirkuituetatik at ibili. Beste argitaletxetakoen aldean *alternatibotzat* dugun gidak auzo *alternatibotzat* jotzen dituenetara jotzen dugu, ezaxola; *alternatibotasunak* berak balio espekulatiborik ez balu bezala; gune horietan turismoa gure pausoz sartuko ez balitz bezala; Venezia sindromea eta ez-turiston disoziazio-ihesa txanpon beraren bi alde ez balira bezala. ■